

Danbolin Musika Eskola / 2022-23 ikasturtea A R A U A K

1. ARAUA

Musika eskolako ikasketa-plangintza:

MUSIKA HEZKUNTZA

* **1. mailan:** 4, 5 eta 6 urteko ikasleak **adinaren arabera** sailkatuko dira: musika eta mugimenduan 1.1., 1.2. edo 1.3. kurtsoan (urte batetik bestera egiten duten garapen orokorra handia delako).

Maila honetan ez dago B ikasketa plangintzarik, hau da, 3. kurtsoko konpetentzia guztiak lortzen dituen ikasleak, 1. mailako diploma lortuko du.

* **2. eta 3. mailan:** ikasleak **ikasketa musikalen arabera** sailkatuko dira, 2. edo 3. mailan.

- 1. MAILA (4, 5 eta 6 urtekoak):

* Musika eta mugimendua: 1.1. kurtsoa (4 urte; 1 ordu, musika eta mugimendua).

* Musika eta mugimendua: 1.2. kurtsoa (5 urte; 1 ordu, musika eta mugimendua).

* Musika eta mugimendua: 1.3. kurtsoa (6 urte; 45' musika + 45' mugimendua).

Musika eta mugimendua 1.3. gainditua = DIPLOMA.

1. MAILA: MUSIKA ETA MUGIMENDUA		
4, 5 eta 6 urteko ikasleak, adinaren arabera sailkatuko dira, dagokien kurtsoan		
	MUSIKA	MUGIMENDUA
1.1. KURTSOA (4 urte)	60 minutu	/ astean
1.2. KURTSOA (5 urte)	60 minutu	/ astean
1.3. KURTSOA (6 urte)	45 minutu/astean	45 minutu/astean
DIPLOMA		

- 2. MAILA (7 urtetik aurrera):

A Plangintza: musika ikasketak diploma lortuaz

- * Musika mintzaira 2.1. (1 ordu + 1 ordu) + Instrumentua 2.1. (30')
- * Musika mintzaira 2.2. (1 ordu + 1 ordu) + Instrumentua 2.2. (30') + Taldea.
- * Musika mintzaira 2.3. (1 ordu + 1 ordu) + Instrumentua 2.3. (30') + Taldea.
- * Musika mintzaira 2.4. (1 ordu + 1 ordu) + Instrumentua 2.4. (30') + Taldea.
- * Musika mintzaira 2.5. (1 ordu + 1 ordu) + Instrumentua 2.5. (30') + Taldea: **Gaindituak = DIPLOMA.**

Ikaslearen instrumentuan berezko taldea ez dutenak, beste talde batean bi ikasturte gutxienez egingo dituzte. Baina ikaslearen instrumentuan berezko taldea dutenak, bertan parte hartzeko gai direnetik joango dira.

2. mailako diploma lortzeko, gainditu behar dira: Musika mintzaira 2.5. + Instrumentua 2.5. + Taldean gutxienez bi ikasturtetan parte hartzea.

- * Dantza 2.1. (1 ordu + 1 ordu).
- * Dantza 2.2. (1 ordu + 1 ordu).
- * Dantza 2.3. (1 ordu + 1 ordu).
- * Dantza 2.4. (1 ordu + 1 ordu).
- * Dantza 2.5. (1 ordu + 1 ordu).

B Plangintza: musika ikasketak diplomarik gabe.

- * Musika mintzaira 2.1. (1 ordu + 1 ordu) + Instrumentua 2.1. (30').
- * Musika mintzaira 2.2. (1 ordu + 1 ordu) + Instrumentua 2.2. (30') + Taldea.
- * Musika mintzaira 2.3. (1 ordu + 1 ordu) + Instrumentua 2.3. (30') + Taldea.
- * Instrumentua 2.B.J. (30') + Taldea (10 eta 11 urte).
- * Instrumentua 2.B. (40') + Taldea (12 urtetik aurrera).

Instrumentua 2.B.J.: 10 urte (2.B.J.1) eta 11 (2.B.J.2) urteko ikasle bat, instrumentuan bakarrik matrikulatu daiteke eta instrumentua 30' izango du.

Instrumentua 2.B.: 12 urtetik aurrerako ikasleek, instrumentuan bakarrik matrikulatu daitezke eta instrumentua 40' izango dute.

Ikasle bat 2.B.J edo 2.B-n egongo da, 2. mailako instrumentuko maila lortu arte. Lortzen duenean, 3.B-ra pasako da.

Ikasleak, instrumentuko ikasketak baditu, irakaslearen ebaluazio baten ondoren, honek erabakiko du 2.B. edo 3.B. matrikulatuko den.

Ikasle guztiei bultzatuko zaie taldeetan parte hartzera, nahiz eta derrigortasuna ez eduki.

Taldea 2. mailan edo 3. mailan egin behar duen, ikasle bakoitza kontuan hartuta, pedagogikoki erabakiko da.

Ikasle batek, instrumentuko maila badu, taldean bakarrik parte hartu dezake.

2. mailako diploma lortu nahi badu, gainditu behar ditu: musika mintzaira 2.5. + instrumentua 2.5. + Taldean gutxienez bi ikasturtetan parte hartzea.

2. maila gainditu duen ikasle baten maila lortu badu, baina 2.mailako diplomarik ez badu lortu, pasako da:
3. mailan, instrumentua 3.B.

IKASKETA MUSIKALEN PLANGINTZA 2. MAILA				
MUSIKA IKASKETA "A"		MUSIKA IKASKETA "B"		
MUSIKA MINTZAIRA	INSTRUMENTUA	INSTRUMENTUA	INSTRUMENTUA	DANTZA
M.M. 2.1.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)	INSTRUMENTUA 2.1. kurtxoa 30 minutu/astean			Dantza 2.1.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)
M.M. 2.2.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)	INSTRUMENTUA 2.2. kurtxoa 30 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean			Dantza 2.2.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)
M.M. 2.3.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)	INSTRUMENTUA 2.3. kurtxoa 30 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean			Dantza 2.3.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)
M.M. 2.4.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)	INSTRUMENTUA 2.4. kurtxoa 30 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean	INSTRUMENTUA 2.B.J.1 kurtxoa 10 urte 30 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean	INSTRUMENTUA 2.B. kurtxoa 12 urtetik aurrera 40 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean	Dantza 2.4.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)
M.M. 2.5.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)	INSTRUMENTUA 2.5. kurtxoa 30 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean	INSTRUMENTUA 2.B.J.2 kurtxoa 11 urte 30 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean		Dantza 2.5.kurtxoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)
DIPLOMA		Ez dago DIPLOMA		

- 3. MAILA (7 urtetik aurrera):

A Plangintza: musika hezkuntza diplomarekin

- * Instrumentua 3.1. (40') + Taldea.
- * Instrumentua 3.2. (40') + Taldea.
- * Instrumentua 3.3. (40') + Taldea.
- * Instrumentua 3.4. (40') + Taldea.
- * Instrumentua 3.5. (40') + Taldea.
- * Instrumentua 3.6. (40') + Taldea: **Gaindituak = DIPLOMA.**

Ikaslearen instrumentuan berezko taldea ez dutenak, beste talde batean bi ikasturte gutxienez egingo dituzte. Baina ikaslearen instrumentuan berezko taldea dutenak, bertan parte hartzeko gai direnetik joango dira.

3. mailako diploma lortzeko, gainditu behar dira: Instrumentua 3.6. + Taldean gutxienez bi ikasturtetan parte hartzea.

- * Dantza 3.1. (1 ordu + 1 ordu).
- * Dantza 3.2. (1 ordu + 1 ordu).
- * Dantza 3.3. (1 ordu + 1 ordu).

B Plangintza: musika hezkuntza diplomarik gabe

- * Instrumentua 3.B (40') + Taldea.

Instrumentua 3.B.: 2. maila gainditu duen ikasle baten maila lortu du, baina 2. mailako diplomarik ez du lortu.

Ikasleari bultzatuko zaio taldeetan parte hartzera, nahiz eta derrigortasuna ez eduki.

IKASKETA MUSIKALEN PLANGINTZA 3.MAILA			
MUSIKA IKASKETA "A"		MUSIKA IKASKETA "B"	
MUSIKA MINTZAIRA	INSTRUMENTUA	INSTRUMENTUA	DANTZA
	INSTRUMENTUA 3.1. kurtsoa 40 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean	INSTRUMENTUA 3.B. kurtsoa 2.mailako diplomarik ez, baina instrumentu maila bai. 40 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean	Dantza 3.1.kurtsoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)
	INSTRUMENTUA 3.2. kurtsoa 40 minutu/astean Taldea: 1 ordu/astean		Dantza 3.2.kurtsoa 2 ordu/astean (1 ordu +1 ordu)

	INSTRUMENTUA 3.3. kurtsoa 40 minutu/astea Taldea: 1 ordu/astea		Dantza 3.3.kurtsoa 2 ordu/astea (1 ordu +1 ordu)
	INSTRUMENTUA 3.4. kurtsoa 40 minutu/astea Taldea: 1 ordu/astea		
	INSTRUMENTUA 3.5. kurtsoa 40 minutu/astea Taldea: 1 ordu/astea		
	INSTRUMENTUA 3.6. kurtsoa 40 minutu/astea Taldea: 1 ordu/astea		
DIPLOMA		Ez dago DIPLOMA	

2. ARAUA

Instrumentuko ordua ikasturte bakoitzeko egutegian adierazten den egunean jarriko da eta ondorengo irizpideak jarraituko dira:

- 1.) Ordu-tegiak jarriko diren egunean, goizeko 12:00etan, zozketa bidez zenbaki bat aterako da, ikasleen espediente zenbaki guztien artean.
- 2.) Instrumentu bakoitzeko irakasleak, bere ikasleekin egingo du bilera ordu-tegiak jartzeko. Zozketan atera den espediente zenbakitik aurrera, jarraituko da ordena, ordu-tegiak aukeratzeko:
 - 18:00etan: 2.1., 2.2., 2.3., 2.4., 2.5., 2.B.J.1., 2.B.J.2. kurtsoak.
 - 19:00etan: 3.1., 3.2., 3.3., 3.4., 3.5., 2.B., 3.B. kurtsoak.
- 3.) Ikasle batek, bilera horretara ezin badu etorri eta bilera baino lehen, irakaslearekin bere ordu-tegi posibleak adostu baditu (telefonoz, e-mailez...), bileran txanda tokatzen zaionean, ordu-tegi hori kontutan hartuko zaio (libre badago emango zaio eta bestela ez).

3. ARAUA

Maila bakoitza gainditzeko, dauden ikasgaien asistentzia minimoa % 90koa izan behar du.

4. ARAUA



Tresna ikasketetako ikasleak ez dauka instrumentua erosi beharrik gomendagarria bada ere, musika eskolako bat alokatu dezake. Hori bai, lehenengoa lehenengo kurtsoko ikasleak izango du.

5. ARAUA

Musika eskolako talde batean parte hartu nahi duen ikasleak, doan izango du baldin eta beste gairen batean matrikulatua badago. Matrikulatua ez dagoen ikasleak, ikasturteari dagokion matrikula ordaindu beharko du.

6. ARAUA

Ikasteko gogo gutxi eta falta asko egiten duen ikasleak ez du hurrengo urterako tokirik gordetzeko eskubiderik izango, eta ez da, orobat, ikasle ofizial izango.

7. ARAUA

Klasea bukatu eta ikaslea musika eskolako gelatik irten ondoren, gurasoen ardura izango da.